



1. Gida honen helburua

Udal eta administrazio batzordeei laguntzea euren ardurapean dauden lursail komunaletan nekazal ekoizpen ekologikoaren Europar araubidea ezartzen.

2.- Nekazal ekoizpen ekologikoaren Europar araubidea (848/2018 EB Erregelamendua)

Nekazal ekoizpena eredu ekologikoan nola egin behar den definitzen da, eta lortutako produktuak merkaturan aipamen babestuekin eta ekoetiketarekin¹ identifikatzeko jarraitu beharreko kontrol eta ziurtapen sistema ezartzen da.

Etiketatzeko araubide honekin, elikagaien merkaturatzean “eko”, “bio”, “Ekologiko”, “Biologiko” eta “Organiko” aipamenak babesten dira. Honek berme bat ematen dio kontsumitzaileari eta ekoizleen artean lehia desleiala saihesten da, denek bete beharreko baldintza minimoak ezartzen eta betearazten direlako.

Etiketatzeko araubide honek ekoizpenerako erabiltzen diren ekoizpen unitate, lursail eta instalazio guztiak erroldatzea eta kontrol entitate ofizial baten jarraipena izatea behartzen du. EAE mailan kontrol entitate hori, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua da, ENEEK-Ekolurra (ES-ECO-026-VAS).

Ekoizpena ekologiko aipamenarekin merkaturatzen duten EAEko abeltzainek, larre komunalak erabiltzeko aukera dute baina lur eremu horiek etiketatze araubidean erregistratuta egon ezean abeltzainak berak frogatu behar izaten du larre komunal horiek araudia betetzen dutela, nahiz eta bera ez den benetan kudeatzen dituen.

3. Zer onura dakar inskripzioak?

- ✓ Larre komunala araubide ekologikoan izateak abantaila bat suposatzen du nekazal ekoizpen ekologikoan ari den abeltzainarentzat. Larreen kudeaketak ekoizpen ekologikoaren araudia betetzen duela ziurtatuta egongo da alde zuzenetik, eta horrela abeltzainak ez du urtero, abereak mendi komunaletara igo behar dituen bakoitzean, mendiaren administratzailearekin hau konprobatzen eta dokumentatzen ibili beharrik izango.
- ✓ Larre horien maneiak europar ziurtagiri ekologikoa izanda, aukera berriak zabaltzen dira, adibidez, baso bilketan lortutako produktuak ekoetiketarekin merkaturatzeko.
- ✓ Nekazal ekoizpena ekologikoan ziurtatuta egoteak abantaila batzuk suposatzen ditu Nekazal Politika Bateratuan.

¹ Nekazal Ekoizpen ekologikoaren Europar ekoetiketa (848/2018 EB Erregelamendua):



- ✓ Ingurumenaren zaintzarekin lotutako programa askotan ingurumen-adierazle bezala hartzen da ekologikoan ziurtatutako nekazal lurren ehunekoa. .

Garrantzitsua da aipatzea ere, ekologiko araubidetik kanpo dauden abeltzainek ez dutela inongo arazorik izaten ekologikoan ziurtatuta dauden larre komunal hauek aldi berean erabiltzeko. Abereak mendian dauden denboran abeltzain ekologikoren batek ekoizpenik jaso nahiko balu (esnea normalean), bere ardura izango zen abereak ondo identifikatuta eta bereiztuta izatea.

4. Nork eskatu dezake lursailen inskripzioa ekologikoaren araubidean?

Normalean ekoizpen edo elaborazio aktibitatearen titularrak eskatzen du eta pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke.

Larre komunalen kasuan, kudeaketaren **arduradunak** eskatu dezake ziurtapen ekologikoa, larreen kudeaketa erabakiak hartzeko eta bete arazteko eskumena duen pertsona fisikoak edo juridikoak. Kasuan kasu, arduraduna izan daiteke: udaletxea, administrazio batzarrak, abeltzainen elkarte bat, edo beste edozein entitate.

Ziurtagiriaren titularrak kontrol eta ziurtapen ekologikoko sistema kudeatzeko solaskidea edota ordezkaria izango den pertsona edo entitatea izendatu dezake, eskaera aurkeztearekin batera. Solaskide edo ordezkari hau arduratu daiteke larreen kudeaketa lanen erregistroaz (landa koadernoan), kontrol entitateari arreta emateaz (ENEEK-Ekolurra), eta behar izanez gero laginketak egiteaz, analitikak aztertzeaz, eta arau hausteak izatekotan neurri zuzentzaileak aurkezteaz, edota prebentzio neurriak hartzeaz.

5. Ze dokumentazio prestatu eta aurkeztu behar da?

Inskripzio-orria eskatu behar da kontseiluan (sustatu@ekolurra.eus edo 94 6271594 telefonora deituz) eta bete ostean ondorengo dokumentuekin batera bueltatu behar da:

- Altan emango diren lursailen SIGPAC erreferentziak (REGA zenbakia izanez gero ustiategiari dagokion lur aitortpena erantsi).
- Titularraren identifikazio fiskala (IFK) edo antzekoa.
- Kontseiluaren dokumentu eredu jarraituz, larreen kudeaketa nola egingo den aurreikusten duen memoria bat.

6. Zeintzuk dira bete beharreko baldintza teknikoak?

2018/848 EB Erregelamenduaren II eranskinaren I partean “Landare-ekoizpenari buruzko arauak” zehazten diren baldintzak bete behar dira.

Laburbilduta:

- ✓ Sistema eta ziklo naturalak errespetatzea, eta lurzorua, uraren eta airearen egoera, landareen eta animalien osasuna eta haien arteko oreka mantentzea eta hobetzea.
- ✓ Lurraren bizia, emankortasun naturala, egonkortasuna, ura jasotzeko ahalmena eta biodibertsitatea mantentzea eta hobetzea. Materia organikoaren galera, lurzorua trinkotzea eta higatzea prebenitzea eta fenomeno horien aurka borrokatzea.
- ✓ Paisaia naturaleko elementuak kontserbatzea.
- ✓ Berriztagarriak ez diren baliabideen eta kanpoko baliabideen erabilera ahalik eta gehien murriztea.
- ✓ Energiaren eta baliabide naturalen erabilera arduratsua, hala nola ura, lurzorua, materia organikoak eta airea.
- ✓ Larreetan eman daitezkeen izurrite zein gaixotasunei aurre egiteko prebentzio neurriak eta teknika kultural egokiak erabili behar dira. Baina azkenik produktu fitosanitarioak erabili behar izanez gero, araudi ekologikoan jasota dauden sustantzia aktiboen zerrenda positiboan baimenduta izan beharko dira (1165/2021 EB Erregelamendua)
- ✓ Herbiziden erabilera debekatuta dago.
- ✓ Baso bilketaren kasuan bilketa horrek ez dio habitat naturalaren egonkortasunari edo inguruko espezieen mantentzeari eragin behar. Hau ondo egiten dela bermatzeko, ustiapen plan bat garatuta izan beharko da gai horretan aditua den hirugarren pertsona edo erakunde baten eskutik.
- ✓ Larreetan egiten diren nekazal lanen erregistroak mantenduko dira eta Kontseiluko teknikarien esku jarriko dira, ondorengoak ezagutzeko: larratzen diren animalien mugimenduak, larreen ongarriztatze, tratamenduak, labore mekaniko, ereintza etab.

- ✓ Lursailetan egindako ongarriztatzeak eta abere-karga osoak ez du gaindituko azalera hektarea bakoitzeko urtean 170 kg nitrogeno organikoko muga. Muga horren baliokide den azienda-unitate kopurua finkatuta dago Eusko jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2022ko azaroaren 8ko ebazpenean.

Kategoria edo espeziea / Categoría o especie	Hektareako animalien gehieneko kopurua: 170 kg N/ha/urte / Número máximo de animales por hectárea a 170 kg de N/ha/año
6 hilabetetik gorako ekidoak / Equinos de más de 6 meses	2
Gizentzeko txahalak / Terneros de engorde	5
Urtebetetik beherako beste behi batzuk / Otros bovinos de menos de 1 año	5
1 eta 2 urte bitarteko abelgorri arrak / Bovinos machos de 1 a 2 años	3,3
1 eta 2 urte bitarteko behi emeak / Bovinos hembras de 1 a 2 años	3,3
2 urtetik gorako abelgorri arrak / Bovinos machos de más de 2 años	2
Hazteko txahalak / Terneras para cría	2,5
Gizentzeko txahalak / Terneras de engorde	2,5
Esne-behiak / Vacas lecheras	2
Esne-behi birjartzaileak / Vacas lecheras de reposición	2
Beste behi batzuk / Otras vacas	2,5
Untxi ugaltzaileak / Conejas reproductoras	100
Ardiak / Ovejas	13,3
Ahuntzak / Cabras	13,3
Txerrikumeak / Lechones	74
Umetarako txerrak / Cerdas reproductoras	6,5
Gizentzeko txerriak / Cerdos de engorde	14
Beste txerri batzuk / Otros cerdos	14
Haragi-oilaskoak / Pollos de carne	580
Oilo erruleak / Gallinas ponedoras	230

Lehenago aipatu bezala, larre horietan izango diren abereen eta larratze sistemaren inguruko baldintzak 2018/848 II eranskinaren II partean “Animali-ekoizpenari buruzko arauak” atalean jasotzen dira, baina arau hauek betetzeko ardura soilik larre komunal horiek erabiltzen ari diren abeltzain ekologikoena izango da eta ez mendi komunalaren titularrena.

7. Zeintzuk dira epeak eta norekin jarri behar naiz kontaktuan?

Eskaera onartzen den momentuan larre komunala ekologikoaren etiketatze araubidean altan emanda gelditzen da eta aktibitateak “bilakaeran” kalifikazioa jasotzen du ziurtagiri ekologiko ofizialean (TRACES web ofizialean publikatzen da). Bi urtetako bilakaera prozesuaren ostean larreen kudeaketak “ekologiko” kalifikazioa jasotzen du. Baina kalifikazio honek ez du inongo garrantzirik.

Hasierako arreta: komunikazio arloko teknikaria (Amaia), kontaktatzeko idatzi sustatu@ekolurra.eus edo 94 6271594 telefonora deitu (2 luzapen zenbakia).